En este proceso participaron, además de más de 160 personas voluntarias de nuestro pueblo, diversas instituciones y entidades que con su experiencia profesional facilitaron y coordinaron la labor. Por ello, es de recibo agradecer a Emergencias de Gobierno Vasco, Ertzaintza,



Cruz Roja, Dya, Grupo del Perro de Salvamento de Euskadi, Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia, Policía Municipal de Mungia, trabajadores y trabajadoras del ayuntamiento y de Astiunerako Udal Erakundea, protección civil de Mungia, componentes de Andui Mendigoizale Taldea y todas y cada una de los y las mungiarrras que voluntariamente haan colaborado sin descanso.

Por ello, el Consejo Social reunido el 10 de abril, ha decidido este año reconocer la labor de esos voluntarios y voluntarias

mungiarras que, durante 6 días, buscaron incansablemente hasta dar con nuestro vecino desaparecido.

Sirva el premio AMAtxu Saria para reconocer y alabar la solidaridad que ha demostrado el pueblo de Mungia personalizado en este numeroso grupo de voluntarios y voluntarias.

Invitamos, a través de estas líneas, a todas aquellas personas que han participado de manera voluntaria en la búsqueda de Simón Arranz a acudir al acto de AMAtxu Saria 2014 el próximo domingo 4 de mayo.

Aurtengo Amatxu Saria, mungiarren alkartasunari

Datorren maiatzak 4an, betiko lez, Mungiako Udalak AMAtxu Saria entregatuko dau eguerdiko 13.15etan. Golardo honen bitartez, gure herriak, irabazi asmorik gabe besteak laguntzen aritzen diren pertsona eta erakundeak saritzen ditu. Aurten baina, saria ez du pertsona edo erakunde jakin batek bakarrik jasoko. Oraingoan, Simon Arranz Alonso mungiarren bilaketan aritu ziren boluntario guztiei eskertu nahi diegu: Eusko Jaurlaritzako Larrialdiak, Ertzaintza, Cruz Roja, Dya, Euskadiko Txakur Salbamentu taldea, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saila, Mungiako Udaltzaingoa, udaleko eta Astiunerako Udal Erakundeko langileak, Mungiako Babes Zibila, Andui Mendigoizale Taldea eta oro har, bilaketa lanetan deskantsu barik ibilitako mungiar boluntario guztiak, eskainitako lan, esfortzu, gogo eta alkartasunagaitik.

El programa Jagoten amplía su atención a las personas dependientes de cualquier edad e incide en la ayuda al cuidador ◀

Jagoten, mendekotasundun guztientzako, baita jagoleentzako bere bai

Gizarte Zerbitzuetako Mungialde Partzuergoak, Jagoten programaren bidez mendekotasunen bat daben pertsonak eta euren jagoleak lagundu nahi ditu. Aurten zerbitzuak zabalduko dira, pertsona dependete guztiei bideratuko baitira laguntza eta antolatutako tailerrak, adina edozein dala bere. Gainera, jagoleei bere zainketarako tresnak eskainiko jakez eta dependenteentzako tailerretan parte hartzeko aukera bere izango dabe oraindik aurrera.

El Consorcio Mungialde de Servicios Sociales trae novedades para este 2014, y es que el programa Jagoten atenderá a partir de ahora a personas dependientes de cualquier edad, y, además, las personas cuidadoras podrán participar una vez al mes en las sesiones y talleres para personas dependientes.

El programa Jagoten es desarrollado por el Consorcio Mungialde de Servicios Sociales desde finales del año 2007, un plan de atención a las personas dependientes que viven en su domicilio y de apoyo psicosocial a sus familiares cuidadores. El programa, que es regulado y subvencionado por la Diputación Foral de Bizkaia, ofrecerá atención no solo a los mayores de 60 años, sino a personas de cualquier edad.



Son varios los aspectos que se trabajan en los talleres que se desarrollan de cara a ayudar a la persona dependiente y ralentizar su proceso de dependencia: la estimulación cognitiva, la logopedia, la autonomía personal y el mantenimiento funcional. Este año se ha introducido una novedad: las personas cuidadoras podrán participar en los talleres, y aprender así cómo continuar practicando en casa los ejercicios que su familiar necesita.

Sin embargo, desde el Consorcio Mungialde de Servicios Sociales se pretende atender y cuidar también a la persona cuidadora mediante un servicio de apoyo y formación que proporcione herramientas para la atención a la persona dependiente. Así, a lo largo de este año se han preparado conferencias sobre alteraciones del comportamiento, el ictus, prevención de riesgos en el hogar y primeros auxilios. Además, las personas cuidadoras podrán aprender, con ayuda de un

profesional, técnicas para reducir el estrés y la ansiedad provocados por el cuidado continuo. Este año se va a organizar asimismo un taller de risoterapia para las personas cuidadoras.

Por último, desde JAGOTEN se pretende incidir en el campo de la información y sensibilización social, y mediante un programa de encuentros intergeneracionales entre el alumnado de 1º de la ESO y las personas mayores de la Residencia y del Centro de Día San Jose Etxe Alai que se vienen desarrollando desde el año 2009, quiere modificar la percepción negativa que a menudo la ciudadanía tiene respecto al proceso de envejecimiento y lo que ello conlleva. A lo largo de cada curso escolar se organizan 9 talleres, y participan alrededor de 200 estudiantes. En 2011, estos talleres recibieron el VI Premio Nagusi otorgado por el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales de Gobierno vasco.

Mungialdeko berbakerea



Orrialde honen helburua gure ondarearen parte bat batu eta zabaltzea da, hain zuzen bere, Mungialdeko berbak. Gaur egun letra idatziaren gizartean bizi garanez, emoten dau idazten ez danak ez daukala izaterik; halanda bere, gure eskualdeko berbeta honetan badira hainbat eta hainbat hitz, normalean idazten ez doguzan arren, berbaz egunero-egunero erabilten doguzanak. Berba horreetariko batzuk, Mungiarra aldizkarian batzea da gure asmoa.

Zure ekarpenak bialdu gura badeuskuzuz, idatzi helbide honetara: euskera@mungia.org

ZELAN IDATZI?	ZELAN ESATEN DOGU?	ESANGUREA
AGIRAKA EGIN	AGIRIKE EiÑ	Errieta egin, hasarre egin. "Ez egin agirikarik, ez dot apurtu eta".
AZPIKOZ GANERA	ASPIKOS GANERA	Aldrebes, kontrara, alderantziz.
BERESI(A)	BERESIE	Era guztietako arbolak eta landarak hazten diran lekuari deritxo. Berez hazia. Gaztelaniazko "jaro"edo "jaro".
ESTADUAN EGON	ESTADUEN EGON	Haurdun egon. Gaztelaniaz "estar en estado de buena esperanza" esaten da.
FUSTE(A)	FUSTEA	Ganorea, sustantzia, sustraia, trentina. "Horrek ez dauka ez usterik eta ez fusterik".
PAPAO(A)	PAPAU	Ergela, kokoloa, inozoa.
SOKORRUKA	SOKORRUKA	Oihuka.
TARRATAD(e)A	TARRATADEA	1) Oihaletan egiten dan urradurea. 2) Erropeak apurtukeran egiten dauen zaratea. 3) Uzkerraren zaratea (Aurreko adieratik zabalduta).
UGAZABA UGAZABANDREA	USABA USABANDREA	Jabea, nagusia, agintaria

Mungia Udala
Euskera Zerbitzua

Tel. 94 674 90 89
euskera@mungia.org
www.mungia.org



MUNGIA
UDALA

Mungiarrek lokal barriak estreinatuko dabez: Gaztelekua, Rock lokalak eta bildumazaleentzako erakusketa zentroa

Estrenamos nuevos locales: Gaztegune, locales de ensayo para grupos de rock y un centro de exposiciones de coleccionismo

Los locales donde actualmente se ubican el Gaztegune, La Oficina de Información para la Juventud y los locales de ensayo para grupos de música, en Legarda, cambiarán de ubicación a partir de junio. El inminente derribo del edificio en favor de un nuevo centro y entorno escolar obliga a reubicar estos espacios. Para ello, el Ayuntamiento habilitará los locales que antes ocupaba el PCPI para ubicar los locales de ensayo; en los bajos del paseo Aita Arrupe, un nuevo local en el centro de Mungia para el Gaztegune y la Oficina de Información para la Juventud, así como un centro de exposiciones de coleccionismo.



Jakina denez, Legardako eskola barria eraikitzen ari dira eta beraz, Gaztegunea, Gazteentzako Informazio Bulegoa eta rock taldeen lokalak dagozan eraikina behera botako dabe laster, maiatz inguruan. Horregaitik, kokapen barria izango dabe hirurek.

Alde batetik, Gaztegunea Aita Arrupe kalepean kokatuko da, Agirre Jauregiaren atzeko aldean dagoan lokal barrian hain zuzen be. Modu horretan, erdi-gunetik paraje egongo da, eskuragarriago, 200 m2ko lokal diafanoan: Gazteentzako Informazio Bulegoa, jolas-gunea (ping-pong mahaiak eta futbolinarekin); egongela (joko interaktiboak eta bestelakoak); batzartzeko eta lagunekin egoteko lekua eta

norberak konsultatu ahal izateko ordenagailu gela bat bere izango ditu.

Bestetik, Mungia Rockek bere beste kokapen barri bat izango dau, lehen Mungialdeko PCPI egoan lokalean, ferialean. Kokapen barrian leku zabalagoa izango dabe musikariek, 200 m2 baititu lokal honek, entsegu gela bi, biltegia eta ikuskizunetarako espazio bat bere bilduko dituen. Gainera, talde bik era batera jotzea ahalbidetzeaz gain, goizez bere erabili ahal izango da. Orain arte, eskolako ordutegiaren arabera moldatu behar zirala kontuan hartu behar da.

Proiektu barri honek abiatzeko, Mungiako Udalak 170.000 eurotako

inbertsinoa egingo dau, gazteen aldeko apustu garbia helburu. Horrela, pasa dan martxoaren 26ean parte-hartze foro bat antolatu zan egitasmoon barri emoteko eta instalakuntza barrien gainean iradokizunak eta proposamenak biltzeko asmoz. Gainera, eraikin barriaren planoak bere erakutsi ziren, baita espazioen banaketa be, eskainiko diran azpiegitura eta zerbitzuak zehaztuta.

Fororako deialdia sare sozialetan, udaleko webgunean, kartelen bidez eta bestelako bitartekoak erabilita egin zan. Bestalde, foroaren ostetik plana ikusteko eta iradokizunak egiteko epea bere zabaldu zan, Gaztegunean bertan, e-mailez eta Facebook bidez egin daitezkezanak (www.facebook.com/mungia.gazte).

Gazteriari bideratutako proiektuek berebiziko garrantzia dabe Mungiako udalarentzako. Izan be, berorren heziketa, aisialdia eta mungiarrok horretarako eskura dabezan baliabideek markatuko dabez hein handi batean gazteen eguneroko bizitza. Horregaitik, nabarmentzekoa da bai Informazio Bulegoan, bai Gaztegunean eta baita musika entsegu lokaletan abiatzen diran egitasmoak eta eskaintzen diran zerbitzuak bere nabarmendu eta baloratzea.

Gazteentzako Informazio Bulegoan hainbeste gaien inguruko kezka eta galderak erantzuten dira (etxebizitza, enplegua, bidaiak, ikasketak, aisia eta denpora libre, etabar). Astegunetan erabilten da gehien zerbitzu hau eta 2013an guztira 1.892 kontsulta izan zituen.

Gaztegunek barriz 7.666 erabiltzaile izan zituen igaz, eta bisita gehien biltzen dabezan asteko egunak barikua eta zapatua izan ziren, batazbesteko 100 gazte hartu zituztenak. Bertan 14 eta 30 urte bitarteko gazteentzako jarduerak antolatzen dabez: ikastaro-tailerrak, kontzertuak, lehiaketak, etabar. Orain eta maiatzaren 31ra arte esate baterako, Gazte ibiltari, postal de viaje egitasmoa dago martxan: irabazleak Interrail Global Pass txartel bi jasoko ditu.

Zerbitzua astelehenetik eguenera 17.00etatik 20.00etara eskaintzen da eta barikua eta zapatuetan 17.00etatik 20.00etara bitartean.

Musika taldeentzako entsegu-lokalei dagokienez, zortzi dira egun berorreek erabiltzen dabezanak. Kokapen barriarentzako udalak 85.000 eurotako inbertsinoa egingo dau.

Bide beretik, Mungiako erdigunean baita bere, bildumazalezentzoko bat sortuko dogu. Bertan, urte osan bildumazaleek erakusketak antolatuko dabez, bai Bitxikiak Alkarteko erakusketak iraunkorrak, bai bestelako personak edota alkarrekin proposatutakoak bere, horretarako ahalbideratuko diran bideak jarraituta. Arteak beste txoko bat izango dau beraz Mungian.

Aurten, Mungian 12 bildumazalezazoka antolatu ditugu honezkero, publiko eta parte-hartze aldetik itzelezko arrakasta izan dabenak. Apirilak 26 eta 27an, aukera izan gendun mungiarrok eta hainbat lekutatik etorritako zaleak beste behin bilduma barri, kurioso eta interesgarriak ezagutzeko. Edizinoz-edizino, azoka honek sendotuz joan dira, eta bildumagintza apurka ulertuz, jasoz, eta berez dituen beharrianak ikusita, horretara egokituz joan gara. Objektuen eta bildumen garrantziaz ohartzeaz gain, urtero eta feria bakoitzean

Mungiara hurbiltzen diran persona guztien esfortzua baloratu egin behar dogu baita bere.

Horregaitik, aldizkari honen bitartez, Bitxikiak Alkarteari gure eskerrik beroenak emon gura deutsegu, baita bertan aritzen diran guztiei bere, erakusketok antolatzeko egiten daben lan, esfortzu eta gogoagaitik, urterik-urte feria eder, oso eta handiagoa izatea ahalbidetu baitabe.

Izan bere, azokan hainbeste jentek parte-hartzea ez da Pazko larunbat eta igandean baino ez emoten, hau da, feria hau normalean egin ohi dogun egunetan, baizik eta baita bagilan bere plaza bueltan egiten danean edo gabon garaian institutu inguruan antolatzen dan horretan bere, beti bere herriko bildumazale-alkarte honen laguntzarekin.

Zentro barri honek beraz urte osoan zehar bildumagintza mundua ezagutzeko aukera emongo dau. Aita Arrupe kalepean kokatuko da lokala: 15 metro karratu izango ditu fatxadan erakusketak antolatzeko, 49 metro karratuko gela diafanoa eta 54 metro karratuko biltegia gitxi gora behera.

Gainera, zentro interaktiboa sortzeko asmoa dago, bildumagintzarekin edo oro har artearekin lotura daben tailerrak antolatu nahi dira, erakusketak zentroarekin era batera.



Gazteen lonjak: azterketa akustikoa eta parte-hartzea, ordenantza barrirako oinarriak ◀

Lonjas juveniles: Estudio acústico, participación y nueva ordenanza

El Ayuntamiento de Mungia, a través de la empresa IMAE ha llevado a cabo un estudio acústico de las lonjas juveniles del municipio. El objetivo del mismo es reducir los posibles conflictos entre los usuarios de dichas lonjas y los vecinos más cercanos. Asimismo, los usuarios y dueños de las lonjas han trabajado junto al Ayuntamiento para elaborar la nueva ordenanza que regulará estos locales y que se aprobará en pleno en mayo tras la celebración de foros en los que participarán todas las partes implicadas.

Mungiaiko Udalak herriko gazteek aisialdirako erabilten dabezan lonjetan zarata-ikerketa bat egiten amaitu barri dau. Analisia Mungiaiko IMAE enpresak eroan dau aurrera, udalerrietan, ostalaritzan zein industrian modu horretako entsegu akustikoak eta azterketak egiten eskarmentu handikoa. Ikerketa honen prozesu osoan lonjetako erabiltzaileek, lonjen jaubeek eta inguruko etxebizitzetan bizi diranek hartu dabe parte, euren arteko liskarrak ekiditeko asmoz udaletxeak abiatu dauen proiektu honetan.

Izan be, Mungian asko dira lokal komertzialak aisialdirako erabilten dabezan koadrilak, 43 hain zuzen. Zentzu horretan, lonjetako segurtasun eta bizigarritasun baldintzak baita lokaletako erabiltzaileen eta inguruko bizilagunen artean sortu diran arazoezin arduratuta agertu da beti udala, gazteak eurak eta mungiarrek oro har.

Horregaitik, inplikaturako alderdi guztien aurrean azterketa-akustikoa egitea proposatu zan, lonja bakoitzaren ezaugarriak, kokapena eta isolamendu baldintzak bertatik bertara ezagutzeko, erantzuna ezin positiboagoa izan zalarik. Modu horretan, azken bi hilebeteotan aire-zaratarari eta inpaktuari dagokion isolamendu-entsegu gauzatu da. Teknikoek lonjak bisitatu dabez banan-banan, baita lonja bakoitzaren gainean diran etxebizitzak be, lokal bakoitzeko txosten teknikoak eginez eta bakoitzean ezarri beharreko isolamendu mota zehaztuz, gitxienez 55 dezibeleko isolamendua lortzeko (enpresak

aholkaturako zifra), baita horrek dakarren kostua ezagutzeko be.

Aitatutako maila hori nahiko baxua danez, egin beharreko inbertsino ekonomikoa ez da oso altua izango. Neurri horreek hartu ezker, araudia beteten dala ziurtatuko da eta holan, momentu horretatik aurrera lokal hori era beretsuan erabilteko moduan egongo da.

Udalak lonja bakoitzari zarata kontrolatzeko tresnak eskainiko deutzaz. Izan be, askotan gatxa da zarata maila gehiegizkoa izaten ari dan identifiketea. Horretarako, tresneria egokia izango dau lonja bakoitzak, zarata-maila egokia gaintzen diran momentuetan egoera horri buelta emon eta artezteko.

Lan-ildo hori amaitutakoan, beste ordenantza barri bat proposatuko da. Izan be, hasiera batean beste ordenantza bat onartu zan (iniziaiki baino ez) baina udalak hainbat aspektu sakonago pentsau, eztabaidatu eta hitzartu nahi izan ditu. Horregaitik, lokaletako erabiltzaile eta jaubeekin batera ordenantza barri bat idatzi dau, aurreko ordenantza baliogabetuko dauena.

Maiatzean, inplikaturako alde guztiek barriro be zenbait forotan hartuko dabe parte, eta azkenik, parte-hartzetik jaiotako ordenantza barri horrek, bere tramitazioa hasiko dau, edozein udal-ordenantzak jarraitu beharreko pausuak emonez, hau da: hasierako onarpena, alegazioetarako 30 eguneko epea eta behin betiko onarpena.





Nuevo control de accesos al polideportivo

Kiroldegira sartzeko egiaztatze-sistema barriak

Kiroldegira sartzeko moduak hobera egingo dau aurten udalak martxan jarriko dauen sistema barri oso baten bitartez. Horretarako, kudeaketa sistema informatiko berria ezarriko da, erreserbak on line egiteko aukera emango dauena, beste hobespen batzuen artean. Gainera, sarbidea kontrolatzeko bulegoa lekuz aldatuko dogu, baita sartu-urtenetarako tornoen antolamendua be, sarbide seguru eta egokiagoa lortzeko asmoz. Bertako txartelak bere aldatu ditugu eta martxan dira pasa dan apirilak 9tik, sartzeko emoten dan denpora gitxitu dalarik.

En los próximos meses, el Área de Deporte del Ayuntamiento de Mungia va a proceder a renovar el actual control de accesos que dispone el polideportivo municipal, en aras a mejorar la seguridad y el uso de las instalaciones, así como facilitar el acceso de los usuarios de forma más cómoda y ordenada, mejorando la calidad del servicio ofrecido.

El proyecto consta de varias fases que se acometerán a lo largo del año 2014, algunas de las cuales ya se han iniciado:

- **Actualización del Software de Gestión:** desde el pasado mes de Febrero, contamos con una herramienta informática actualizada, tanto para el control de accesos, como para la gestión de abonados, cursos, etc. Además, estamos desarrollando una aplicación web, que a partir del



último trimestre del presente año permitirá a los usuarios y usuarias del polideportivo realizar reservas on line, consultar disponibilidad de instalaciones, darse de alta en cursos, etc. Una vez que la aplicación esté operativa, informaremos a los usuarios y usuarias de cómo pueden acceder a la misma y se facilitará una clave personalizada para tal efecto.

- **Modificación Física del Control de Accesos:** previsto para los meses de verano de este año, modificaremos físicamente el espacio destinado para la oficina del control de accesos, facilitando la tarea tanto a los usuarios y usuarias que necesiten cualquier servicio por parte del personal del polideportivo, como a los propios trabajadores y trabajadoras de la instalación. Además del cambio físico de la oficina, se modificará la distribución actual de los tornos y portillos de entrada y salida a la instalación, de forma que se consiga un acceso más seguro y cómodo hacia cualquier dependencia de la misma.
- **Sustitución de las Tarjetas de Acceso:** se ha instalado en

los tornos un nuevo sistema de lectura de tarjetas por proximidad, que sustituye al sistema mecánico. Este sistema, implantado y en funcionamiento desde el pasado día 9 de Abril, es mucho más rápido y cómodo para los usuarios y usuarias, ya que solo tienen que acercar la nueva tarjeta a los lectores de entrada y salida instalados sobre los tornos, sin necesidad de introducirla en el mismo. De esta forma, se reducen los tiempos de acceso y las averías de los componentes mecánicos de los propios tornos. Todos los abonados han recibido la nueva tarjeta en el polideportivo de forma totalmente gratuita.



Futbola oinarritik euskeraz" egitasmoa jarriko dau martxan Udalak



Mungiako Udalak, euskera gaztetxoan artean eta bereziki futbolean sustatu nahian, hitzarmen bat sinatu dau Itzarri Consulting enpresarekin. Hitzarmen honek euskeraren erabilera oinarritiko futbolean bultzatzea dau helburu, entrenamenduak euskeraz eta kalitatezkoak izan daitezcan.

Ekimen hau Mungiako eskoletan futbola daukaten entrenatzaileei eta Mungia Kirol Elkartean entrenatzaileei dago bideratuta batez bere. Aurrera eroateko bide ezbardinak jarraituko dira, arduradun guztiekin bilerak egin, formakuntza teoriko-praktikoa emon, denboraldi hasierako lan saioetan zuzeneko esku hartzea izan, jarraipena egin eta azkenik oraindik laguntza behar dabenei arreta berezia eskaini.

Laguntza pertsonalizatua izango da, bai eskola, bai futbol klubetako entrenatzaileei. Ikasgelatik zelaira hedatuko dan laguntza, egunerokoan entrenatzaile bakoitzak bere taldearekin

euskeraz eta kalitatez entrenatzeko dituen trabak gainditzeko aholkularitzan izango dau ardatza.

Hasteko, aurtengo Kepa Deuna futbito txapelketan bere jarriko da martxan egitasmoa. Txapelketa antolatzen daberen arduradunekin bilerak egin dira txapeleketan euskeraren presentzia nabarmenagoa izan daiten, eta laguntza emango jake horretarako. Txapelketan parte hartzen daberen Mungiako eskoletako futbol koordinatzaileekin be bilerak egin dira, eta talde batzuetako entrenatzaileei laguntza pertsonalizatua emango jake baita be entrenamenduak eta partiduak euskeraz izan daitezcan. Udaleko Euskera Sailak bere egitasmo honetan lagunduko digu, "Lau Haizetxu" hainbat partidetan egongo dalarik.

Irailera begira, eta 2014-2015 futbol denboraldia hasi aurretik, eskola eta klubetako entrenatzaileekin hasiko gara lanean: formakuntza teoriko-praktikoa lan saioekin uztartuko

da. Aholkulariak entrenatzaileen beharretara egokituko dira horretarako. Hortik aurrera entrenamendu saioei jarraipena emango jake, euskeraren erabilera neurtzeko asmoz. Hiru hilabeteren buruan ekimena bukatutzat emongo da, jasotako informazioa txosten batetan bilduko dogularik.

impulso al euskera en el fútbol base

El deporte, y sobre todo el fútbol compone uno de los más populares entretenimientos entre los más pequeños. Por eso, desde el Ayuntamiento se pretende impulsar el uso del euskera en el mismo mediante el proyecto "Futbola Oinarritik Euskeraz" en colaboración con la empresa Itzarri Consulting. El programa tiene como objetivo reforzar el uso del idioma en entrenamientos, partidos y fútbol base en general, por lo que se implementará también en el próximo Kepa Deuna Futbito Txapelketa.

"HeMen Euskeraz" ziurtagiria + Gure denda eta tabernentzat + Mungiarrontzat

Maiatzean abiatuko da "HeMen Euskeraz" ziurtagiria eskuratzeko kanpaina. "Hemen Euskeraz" kalidade marka bat da, Mungiako merkataritza eta ostalaritzaren kalidade marka, euren zerbitzua euskeraz emoten daben lokalak identifikatuko dituana. Mungiako Udalak eta Euskeraren Aholku Batzarrak sustatutako ekimen hau maiatzean hasiko da eta abenduan banatuko dira lehengo ziurtagiriak.

Gure komertzioa eta ostalaritza mungiarrongandik paraje dagoan kalidadeko sektorea da. Zeren arabera neurtzen da lokal baten kalidadea? gauza askoren arabera: orduetgia, produktua bera, bezeroenganako tratua... eta bai, hizkuntza bere bai. Zenbat eta erosleen ezaugarrietara eta

beharrizanetara hobeto egokitu, zerbitzu hobea eskainiko dogu, eta gure herritarren ezaugarritako bat euskaldun izatea da. Gure herrian, 5 lagunetik 3k nahiko maila ona daukie berbaz, beste batek ulertu egiten dau eta gainerako gehien-gehienek modu positiboan baloratzen dabe euskerea.

Mungian, ostalaritzako eta merkataritzako hainbat lokalek eskaintzen dabe euren zerbitzua euskeraz, baina bezero askok ez daukie horren barri. "HeMen Euskeraz" ziurtagiriaren helburua horixe da, "lokal honek euskerazko zerbitzua emoten deutsu (+)" esatea herritarrei.

Mungiako Udalak emongo dauen ziurtagiri hau lortu gura daben establezimenduek maiatzean emon

beharko dabe izena. Gero, udagoienean jarraipen anonimo bat egingo jake ikusteko ea baldintzak beteten dabezan (ahozko zerbitzua, papeleria, karteleria...; lokal bakotxaren arabera) eta euskerazko zerbitzua eskaintzen dabenei, abenduan emongo jake zigilua. Zerbitzua euskera hutsean eskaini ez baina bidean diranei bere emongo jake ikur bat.



IZENA EMON EDO INFORMAZINO GEHIAGO:

Udaleko Euskera Saila
euskera@mungia.org
 94 674 90 89

"Gure Kantak" Gure ikastetxeen proiektua

Herriko ikastetxe guztiek "Kanta soinuan" izeneko kanta bilduma (40 kantaz osatua) grabatu dabe apirilean. Gure tradizinoko 40 kanta batzen dituan bilduma horren aurkezpen-kontzertua maiatzaren 16an, arratsaldeko 6etan, eskainiko deuskue Olaldeko frontoian herriko ikastetxeetako eta Santos Intxausti Musika eskolako ikasleek.

Mungiako ikastetxe guztiek –Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoek– kanten bilduma bat egitea erabagi eben igaz, ikas-prozesu osoko maila bakotxean kanta jakin batzuk landu ahal izateko (ikasketa-kurrikulumaren barruan). Euren helburua argia zan: ikasleek ikastetxetik urtetan dabenean tradizinoko 40 kanta jakitea eta taldean kantatzeko kapaz izatea. Igaz hasitako behar horren emaitza maiatzean ikusteko aukerea izango dogu

mungiar guztiok. Mungiako Musicbox estudioan grabatu dan bilduma hori ez da salgai jarriko, ikasletxeentzat baino ez da izango, baina bildumarako grabatu diran kanta batzuk osatutako aurkezpen kontzertua eskainiko dabe maiatzaren 16an Olaldeko frontoian.

Hizkuntzak ez dira komunikaziorako kodigo hutsa, euren inguruan erreferentzia, sinbologia eta kultur mundu oso bat garatzen da. Hortxe sortzen dira lotura afektiboak, konplizitatea eta hizkuntzagazko identifikazioa eta konpromisoa. Eta gure ikastetxeek argi daukie euren helburua horixe dala: ikasle euskaldun osoak –euskeraz bizitzeko kapaz diranak– sortzea, ez euskeraz dakienak huts-hutsean.

Eta hori lortzeko, modu erraz eta aberatsenetako bat gure betiko

kantak ikastea da. Izan bere, kanta zaharrak euskal kulturaren bildumatxu aparta dira. Euskera ederra ez eze, gure ohituren, sinismenen, bildurren, asmoen eta literaturako tradizinoaren oihartzun ezin hobea eskaintzen deuskue; baita talde modura identifikatzeko lokarria bere.

Azpimarratu beharrekoa da urte osoan zehar ikastetxeek egin daben beharra, danek, irakasle eta ikasleek (LH5etik DBH4ra): Bentades Ikastetxeak, Larramendi Ikastolak, Laukariz Herri Ikastetxeak, Legarda Herri Ikastetxeak, Mungia BHIk eta Santos Intxausti Musika Eskolak; baita proiektu honetan laguntzaile izan dan Roberto Etxebarria trikitilariak bere. Proiektu hau Udaleko Euskera Sailak eta Ikastetxeek osatzen daben Eskolen Lantaldetik sortu eta beraren bidez garatu da.

Zine digitala Mungian



El cine digital llega a Torrebillela

El cine digital llega con la primavera a Mungia. Un nuevo proyector digital permitirá ofrecer una amplia variedad de películas en alta calidad de imagen y sonido. Además del habitual cine estadounidense, se proyectarán filmes de otros estados, incidiendo en el cine europeo y por supuesto el cine en euskera o doblado al mismo. Se ha previsto asimismo ofrecer otro tipo de espectáculos como ópera, ballet o conciertos en diferido.

Udabarri bueltan zine digitala helduko jaku Mungiako Torrebillela Kultur Etxera. Apiriletik aurrera, ekipamendu barria estreinatuko dogu, zinema modu digitalean gozatzeko aukerea emongo deuskuna: proiektore digitala. Horrela, programazio zabala eskainiko dogu, irudi zein soinu kalidade handiagoz gainera. Hori baita teknologia digitalaren balioa eta asmoa, pelikuletan irudiak orain artekoak baino askoz

argiago eta garbiagoak emotea, kalidade bikainekoak, pelikulak are ikusgarriagoak egiten dabenak.

Ez da hori baina barrikuntza bakarra izango. Aurton Bilbon estrenatzen daben egun berean edo egun gitxiren bueltan ikusi ahal izango dira pelikulak Mungian bere. Halaber, EEBBetako film arrakastatsuekin batera, beste jatorri batzuetakoak bere eskainiko dira, zine europarrak leku garrantzitsua izango daualarik geurean. Era berean, euskal zinemagintza protagonista izango da Torrebillelako programazioaren barnean, euskerazko lanak zein euskeratuak eskainiko dira-eta, umeei eta nagusiei bere bideratutako filmak hain zuzen. Gainera, Torrebillelan bertan bestelako ikuskizun eta emonaldia bere aurreikusi dira, besteak beste opera, baleta, kontzertuak eta bestelango saioak.

Horrela, Mungiako zaleen atseginerako ezezik, barrikuntza horiek guztiek zinemagintzara zale barriak bere hurbilduko dituela espero dogu.

Nabarmenezkoa da era berean, Bilbo edo merkatal zentroetako zinemekin konparauta bertoko prezioak oso erakargarriak dirala: 5 eurotan nagusientzako sarrera eta 4 eurotan umeentzako zein ikus-entzulearen egunerako.

Udaletxetik Torrebillelara joateko gonbita luzatu nahi deutsegu mungiar guztiei, herrian bertan kalidatezko pelikula eskaintza zabalaz gozatzeko aukera baitago, kotxea hartu barik eta etxetik paraje.



Cooperativa San Isidro: 100 años de servicios al baserritarra

San Isidro Kooperatibak 100 urte

Mungiako eta inguruetako baserritarrentzat oinarritzko laguntza eta zerbitzuak eskaintzen aritu dira azken ehun urteotan, eta horregaitik San Isidro Kooperatibak behar dan moduan ospatuko dau bere urteurrena: Maiatzak 15ean Kooperatiban bertan meza, abesbatza, bertsolariak eta herribazkaria izango dira, besteak beste. Gainera, San Isidoren historia biltzen dauen liburua prestaten ari da Jose Etxegarai Arostegi historialaria.

La Cooperativa San Isidro de Mungia cumple 100 años. Entidad fundamental para los baserritarras de Mungia y toda la comarca durante nada menos que un siglo, celebrará como se merece que a pesar del tiempo, goza de excelente salud con sus más de 300 socios y socias y con la confianza que sus clientes le siguen brindando.

El próximo 15 de mayo tendrá lugar una jornada de celebración muy especial que incluirá diversas actividades: Misa conmemorativa en las propias instalaciones de la Cooperativa; actuación coral de J.M. Arregi Abesbatza; dantzaris; bertsolaris; y como colofón, una comida popular en la que participarán, además de los socios y socias, personas representantes de las numerosas entidades e instituciones que durante todos estos años han colaborado con la misma.

Y es que cien son muchos años prestando servicios. Cien años que les contemplan y reflejan el trabajo, esfuerzo y compromiso que siempre ha caracterizado a esta cooperativa

y que ha sido sin duda el secreto del éxito de la misma.

La Cooperativa San Isidro nació en 1914 con el nombre de "Sindicato Católico Agrícola de Munguia". Aunque la ubicación de su sede-almacén ha variado a lo largo de su historia, desde la década de los 50 estuvo localizada en la calle Elordugoitia, nº 6 (frente a la actual residencia San Jose Etxe-Alai), y fue ya en junio de 2001 cuando se inauguraron las modernas instalaciones que alberga el nuevo edificio Gurelur y que ocupan actualmente en la zona del Ferial de Mungia.

Cuando se gestó la Cooperativa, a principios del siglo XX, la actividad agrícola en nuestro municipio y sus alrededores era absolutamente primordial por lo que contar con una entidad que representase sus intereses y les ayudase a gestionar compras y pedidos así como una "explotación más lucrativa del suelo" tal y como se recoge en sus estatutos fundacionales, fue un importante paso para consolidar e impulsar la presencia y actividad del sector primario en la zona, además

de servir de cauce reivindicativo para sus intereses ante instancias superiores ante la consecución de objetivos primordiales para el sector como canalizaciones del río Butrón, creación de la Escuela Elemental de Trabajo y/o tramitación de distintas prestaciones de la Seguridad Social Agraria como pensiones de jubilación e invalidez para los baserritarras, etc.

Hoy, bajo la presidencia de Dimas Unibaso Billalabeitia y la dirección de Marcelino Arteta ofrece en su nueva sede todo tipo de productos y servicios para sector primario: desde piensos, semillas, abonos y plantas hasta productos de ferretería y maquinaria agrícola o incluso servicios de bar-restaurante.

No cabe duda de que la labor y presencia de la Cooperativa San Isidro en nuestro pueblo ha sido muy intensa, variada y fructífera. Por todo ello y más, celebraremos junto a ellos estos cien años, que podrán ser además recordados y conocidos con más detalle a través del libro recopilatorio que con mimo y detalle está preparando a tal efecto el historiador José Etxegarai Arostegi.





Mungialdea erabakitzeko eskubidearen aldeko giza katean ◀



Durango eta Iruñea arteko 123 kilometroak beteko ditu ekainaren 8an

Badator. Bi hilabete eskas baino ez dira falta Durango eta Iruñea lotuko dituen giza katea osatuko den egunerako. Ekainaren 8an, milaka herritarrok Iruñea eta Durango arteko 123 kilometroak eskutik elkarturik lotuko ditugu, honako hau aldarrikatzeko: eskubidea daukagula gure etorkizuna herri gisa erabakitzeko, herritarroi dagokigula erabakia hartzea eta borondate irmoa dugula eskubide hau egi bihurtzeko.

Ekimena bultzatu duen Gure Esku Dago herri mugimenduak uste du 50 mila lagun inguru beharko

direla giza katearen ibilbide osoa betetzeko, eta kopuru hori erraz gainditzea espero dute. Horretarako gogor ari dira lanean eskualde eta herri gehienetan osatu diren erabakitzeko eskubidearen aldeko plataformak. Gure eskualdean ere bai.

Mungialdeak katearen bi kilometro beteko ditu, 15 garrena eta 16 garrena. Lehena Mungiak, eta bestea Bakio, Arrieta, Meñaka, Jatabe, Gamiz-Fika, Gatika, Fruiz eta Laukizen artean. Mila eta bostehun metro saldu behar ditugu denon artean. Mungian aspaldi dira lanean metroak

saltzen, eta erdilanak baino gehiago bete dituzte orain arte. GURE ESKU DAGOtik giza katean parte hartzera deitu nahi dute, Euskal Herriaren aldarrikapen demokratikoa gauzatzeko mugarri izango delakoan. Jai eguna bihurtu nahi dute jardunaldi hori. Mungialdeak Elorrio ondoan bete behar ditu kilometroak, eta autobusak antolatzen ari dira, kotxeetan Joan behar ez izateko. Goizeko 9ak aldera aterako dira autobusak Mungiatik. Autobusez zein kotxez Joan goizeko 11etan egon beharko gara gure kilometroan, katea antolatzen joateko. 12etan osatuko da katea eta ordu erdiz egongo gara eskuak lotuta, dena ondo grabatzeko. Ostean, nahi dutenek etxerako bidea hartuko dute eta gainontzekoek Durangon 13:30etan hasiko den jaialdiaz disfrutatzen aukera. Arratsaldeko 18:00ak aldera espero da amaitzea.



Umeez badute etortzeko aukera ezer ordaindu gabe.

METROA ZELAN EROSI

Zure metroa eskuratzeko modua txartela betetzea da. Izen abizena eta helbide elektronikoa jarri behar dira eta 5 euro ordaindu. Helburua ez da dirua ateratzea, jendea batzea baizik. Mungiako plataformako kideak plazan daude astebururo metroak eta kamisetak saltzen: ostiraletan 19:30etatik 21:00etara eta igandeetan 12:30etatik 14:30tara (euria izan ezker BBKko arkupean). Internet bitartez ere egin daiteke Gureeskudago.net web orriaren bitartez.

Ekainaren 8ko giza kateak ez du kanpaina baten amaiera izan nahi, jauzi berrietarako abiapuntua baino Herriz herri eratzen ari diren elkarlanak eta konplizitateak jarraipena izatea da asmoa. Eta jauzi berri horiek ahalbidetzeko ezinbestekoa da giza kate jendetsua, parte hartzailea eta erraldoia izatea. GURE ESKU DAGO ekimena anitza da, eta pentsamolde eta iritzi ezberdinetako herritarrak dira protagonista.

DANTZA ZATI BAT

Aurretik, eta motorrak berotzen joateko, "Dantza zati bat" ekimena antolatuko da maiatzaren 10ean. Erabakitze eskubidearen aldeko ekimen kulturala izango da eta arratsaldeko 5etan hasiko da Foruen enparantzaren. Dantzaren inguruan 500 lagun baino gehiago batzea du helburu. 3 kanta eta beste 3 koreografia errazak erabiliko dira eta parte hartu ahal izateko abestiak eta dantzaren pausoak ikasi beharko dira. Azalpenak eta koreografiak dzbmgugian.blogariak.net loturan datoz azalduta. Parte hartzeko eta izena emateko

lotura bera erabili daiteke edota dantzazatibatumungian@gmail.com helbidera idatzi. Maiatzaren 4an, eguerdiko 12etan, entsegu orokorra egingo da Foruen plazan.

Izena lehen bailehen eman, dena ondo antolatu ahal izateko!!!!

Animatu eta parte hartu!!!!



Mungialdea en la cadena humana por el derecho a decidir

EL 8 DE JUNIO UNIRÁ LOS 123 KILÓMETROS ENTRE DURANGO E IRUÑEA

El domingo 8 de junio decenas de miles de personas unirán sus manos para trenzar una cadena humana para reivindicar el derecho del pueblo vasco a decidir su futuro político. Y mil quinientos metros de esa cadena serán cubiertos por vecinos y vecinas de Mungialdea. La plataforma local de GURE ESKU DAGO anima a toda la población a participar en esta iniciativa popular, reivindicativa y plural, y que culminará con una jornada festiva en Durango.

Para participar basta con comprar tu metro. Cada viernes de 19:30 hasta las 21:00 y todos los domingos de 12:30 a 14:30 miembros de la plataforma de Mungia por el derecho a decidir tendrán metros y camisetas a la venta en Foruen enparantza. También se podrán adquirir por internet en la página web de GURE ESKU DAGO. Mungialde completará los kilómetros 15 y 16, en las cercanías de Elorrio, y se fletarán autobuses para evitar los desplazamientos en coches particulares. Y para ir calentando motores, el 10 de mayo, DANTZA ZATI BAT reivindicará de un modo lúdico y cultural el derecho a decidir. La iniciativa pretende reunir a más de 500 personas en Foruen enparantza en torno a 3 sencillas canciones y coreografías que aparecen explicadas en dzbmgugian.blogariak.net. El ensayo general será el 4 de mayo. Ánimo, y nos vemos en las dos citas.



Uriguen Haurtzandegiak maiatzean matrikula epea zabalduko dau ◀

Uriguen Haurtzaindegia, 10 urte betetzen dituen honetan, matrikula epea zabalduko dau beste behin. Horrela, maiatzean izena emateko aukera egongo da, irailean, urrian edo azaroan hasi behar daben umeentzako. Seme-alabak haurtzaindegian abenduan, urtarrilean edo otsailean hasia nahi daben gurasoek barriz urrian egin beharko dabe matrikula. Udaberri partean hasteko, hau da, martxoan, apirilean, maiatzan edo bagilan, urtarrilan eman beharko dute izena.

Argibide gehiago behar ezkeru deitu 94 674 37 45 telefono zenbakira edo idatzi uriguen.mungia@haurreskolak.net helbidera. Informazio osoa www.haurreskolak.net webgunean.

En mayo abierto el plazo de matriculación

La Guardería Uriguen de Mungia abrirá en breve los plazos para matricularse para el próximo curso escolar. Así, en mayo podrán inscribirse los que deseen empezar en septiembre, octubre o noviembre. Para quienes quieran hacerlo en enero o febrero, deberán matricularse en octubre y finalmente, quienes deseen comenzar en primavera, esto es, en marzo, abril, mayo o junio, deberán formalizar sus matrículas en enero.

Más información:

Teléfono: 94 674 37 45 // Email: uriguen.mungia@haurreskolak.net y www.haurreskolak.net.